



PRENTSA-OHARRA

Gaztediaren Etxeko Aholkularitza Juridikoko zazpi aholkularik, denak Nafarroako Unibertsitateko ikasleak, zuzeneko praktikan emandako 30 orduak egiaztatzen dituzten diplomak jaso dituzte

Halaber, hitzarmena berritu da, NUPeko Abokatutzara Sartzeko Masterreko ikasleek parte har dezaten Elkartegintzarako Aholkularitzan

Gaztediaren Etxeko Aholkularitza Juridikoan gazteendako aholkulari-lanetan aritu diren zazpi ikaslek gaur goizean jaso dituzte haien lanaren aintzatespenak, Komunitate Garapeneko zinegotzi ordezkari Esther Cremaesen eskutik. Iruñeko Udalak zerbitzu hori eskaintzen die, aholkularitza espezializatu gisa, 14 eta 30 urte bitarteko lagunei, beste hiru aholkularitza-zerbitzu hauekin batera: Aholkularitza Psikologikoa; Ikasketa eta Aisialdikoa; eta Elkartegintzakoa.

Diplomak banatzeko ekitaldian izan da, baita ere, Mercedes Galán Lorda, Nafarroako Unibertsitateko Zuzenbideko Fakultateko Zuzenbide Publikoko eta Oinarrizko Erakunde Juridikoen Saileko zuzendaria; izan ere, aipatu zerbitzu hori Udalaren eta Nafarroako Unibertsitateko ikasleen arteko lankidetzaren fruitu da, lankidetzaren zeina urtero gauzatzen baita, Udalak eta Nafarroako Unibertsitateko Fundación Empresak sinatzen duten hitzarmen baten bitartez, 1992az geroztik etenik gabe erabilitako sistemarekin bat.

Iaz, zortzi gazte aritu ziren, bakoitza 30 orduko praktikak egiten, eta hainbat gairen inguruko 480 kontsultari erantzun zioten; aurten, orain arte, beste 215 kontsulta zenbatu ditu aholkularitza-zerbitzuak. Gaur, egindako lana aitortu zaie honako ikasle hauei: Camila María Aray Zavala, Andrea Arce Pezonaga, María Teresa Cestau Oroz, Julia Domínguez Moreno, Marina Durán Toribio, Cecilia Fernández Unzué eta Samira Kafaty Geadah. Aholkularitza-zerbitzuan egindako lanak aukera ematen die egoera errealei aurre egiteko eta legedia zuzenean erabiltzeko, betiere haien etorkizun profesionalari begira.

Joan den martxoan dagokien hitzarmena berritu zen NUPekin eta Iruñeko Abokatuen elkargoarekin (MICAP), Abokatutzara Sartzeko Masterreko ikasleek eginkizun berdinak egiten baitituzte Gaztediaren Etxeko Elkartegintzarako Aholkularitzan.

Kontsulten % 74, Zuzenbide Zibilaren eta Lan Zuzenbidearen ingurukoak





Aholkularitza Juridikoak Nafarroako Gobernuak ematen duen Gazte Saria eskuratu zuen 2012an. Abiatu zenetik, doako zerbitzu unibertsal hori gazte orori zabalik dago, eta gazteen interesekoak izan daitezkeen gai juridikoei buruzko informazioa ematen du: etxebizitza lortzeari buruzko informazioa, lan-eskubideak, gazteen partaidetza eta elkartegintza, immigrazioa, genero indarkeria edo edozein jazarpen mota, familia eta izatezko bikoteak, etab.

Zehazki, 2017an hainbat esparrutako 480 kontsulta jaso ziren, nahiz eta kontsulta gehienak, % 42, alegia, etxebizitza- eta familia-kontuei buruzkoak izan ziren (Zuzenbide Zibila), eta % 32, lan-esparrukoak (Lan Zuzenbidea). Azken lau urteetan 406 kontsulta egiten dira batez beste urtean, eta joera gorakorra da zifra absolutuetan: 2014an 308 kontsulta egin ziren, eta iaz, 480.

Aholkularitza-zerbitzua Zangoza kaleko 30eko behean ematen da, aurrez aurre, telefono bidez edo posta elektronikoko bidez, helbide honetan: asesoriajuridica@casajuventud.com). Ordutegia honako hau da: astearte eta ostegunetan 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; 12 arreta-ordu, guztira, astean. Gainera, aholkularitzak gai juridikoen gaineko artikulak egiten ditu Iruñeko Udaleko gazteen atarirako (www.pamplonajoven.es), eta hitzaldiak eta ikastaroak antolatzen ditu, gazteen interesekoak diren gaurkotasuneko gai juridikoak lantzeko.

NUPEko Abokatutzara Sartzeko Masterreko ikasleak

Gaztediaren Etxeko Aholkularitza Juridikoaz Nafarroako Unibertsitateko ikasleak arduratzen diren bezala, NUPEko eta MICAPEko Abokatutzara Sartzeko Masterreko ikasleak Elkartegintzarako Aholkularitzaz arduratzen dira, joan den martxoan berritu zen hitzarmen baten bidez.

Elkartegintzarako Aholkularitzan gazteen elkartegintzari (gazte-elkarteen sorrera, funtzionamendua eta garapena) buruzko galdera espezifikoak erantzuten dituzte –2017an, 255, eta aurren, orain arte, 82–, eta hitzaldiak edo solasaldiak antolatzen dituzte, elkarre-munduekin lotuta dauden gaurkotasuneko gai juridikoak lantzeko. Halaber, harremanetan jartzen dira arlo bakoitzeko erakunde juridiko espezializatuekin (Nafarroako Polizia Zientifikoaren dibisioa eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusia), eta fitxategi zein txosten juridikoak egiten dituzte.

Zerbitzu hori 2014az geroztik eskaintzen da. Hasiera batean Estanislao de Aranzadi Praktika Juridikorako Eskola zen horren kontraparte, NUPEko Lege Zientzen Fakultatearen onespenezekin. Gaur Iruñeko Abokatuen Elkargoarekin egiten da hitzarmena, erakunde hori arduratzen baita egun masterraz. Zerbitzuak astean 2 orduz ematen du jendaurreko arreta: asteazkenetan 12:00etatik 14:00etara.

GAZTEDIAREN ETXEKO AHOALKULARITZA JURIDIKOA

- Zer da?: Iruñeko Udalaren zerbitzu bat da, zeinari esker gazteei informazioa ematen baitaie haien interesekoa den edozein alderdiri buruz, baldin eta gai juridikoekin lotuta badago: lehen etxebizitza eskuratzea –salerosketa eta alokairuaren bidez–, immigrazioa, genero-





indarkeria edo edozein motako jazarpena, familia eta izatezko bikoteak, zirkulazio-zehapenak, elkartegintza, etab.

- Norentzat?: 14 eta 30 urte bitarteko lagunentzat.
- Nola funtzionatzen du?: aholkularitzak modu sinplean erantzuten die egindako kontsultei, bai aurrez aurre, bai telefonoz edo posta elektronikoaren bidez (asesoriajuridica@casajuventud.com). Era berean, aukera dago aholkularitzarekin harremanetan jartzeko Iruñeko Udaleko gazteendako atarian gaitu den formularioaren bidez: www.pamplonajoven.es. Ez da beharrezkoa aldez aurreko hitzordua eskatzea. Beharrezkotzat jotzen bada, idatziz ematen da informazioa, bai eskabide ofizialen bitartez, bai txosten laburren bitartez, non kontsultatu den kontuari buruzko balorazio juridikoa jasoko baita.
- Zerbitzu osagarriak: zerbitzuak gainera, aukera ematen du gai horiek jorratzeko prestakuntza- eta ezagutza-tresnak erabiltzeko, eta, oro har, gazteekin eta Zuzenbidearekin loturiko edozein agiri eskuratzeko: eskabideak, agiriak, baliabideak, etab.
- Non dago?: Gaztediaren Etxeko instalazioen beheko solairuan, Zangoza kaleko 30ean
- Jendaurreko arretarako ordutegia: astearte eta ostegunetan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; guztira, 12 arreta-ordu astean.

Iruñean, 2018ko apirilaren 24an

